

TXISTU

Oinarrizko Irakaskuntzak



PRAKTIKA INSTRUMENTALA

URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

| | | | |
|-------------------|---------------------------------|--------------|--|
| IKASTETXEA | CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP | KODEA | 012681 |
| IRAKASGAIA | Praktika Instrumentala - TXISTU | MAILA | OINARRIZKO IRAKASKUNTZEN 3. eta 4. MAILA |

| HELBURUAK | EBALUAZIO IRIZPIDEAK |
|--|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Taldearen gorputz eta zentzumen ohitura hartzea. 2. Entzumenaren taldearen barnean garatzea, talde afinazioaren oinarri gisa. 3. Alde bakoitza eta osotasuna entzuteko ohituraz jabetzea. 4. Taldearen barnean norberaren instrumentuaren tinbrea atzemateko ahalmenaz jabetzea, taldeko soinu batasuna lortzeko. 5. Ikusmen eta entzumen memoria garatzea, taldearen eta taldekidearen arteko komunikazio bide izan dadin. 6. Bat-batean irakurtzeko gaitasuna lantzen hasia. 7. Musika eta giza kontzeptuetan isiltasunak duen balioaz jabetzea. 8. Ikaslearen taldekako instrumentu praktikaren ideia sustatzea, musika hezkuntzarako eta pertsonen arteko harremanetarako ohitura gisa. 9. Talde instrumentaletik abiatuz, interprete-entzule harremanaren oinarriak ezartzea. 10. Talde barneko dinamikaren diziplina garatzea. 11. Talde jardun ororako arauak ezagutzea: aurretiazko afinazioa, etengabeko arreta, entzuleen, zuzendariaren eta taldekideen aurreko jardueran kontutan hartu beharreko puntuak. 12. Talde barneko erantzukizun indibidualaz jabetzea. | <p>Helburuak zein mailataraino bete diren aztertuko da, oinarri hauei jarraiki:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Instrumentu-afinazioaren praktika, talde afinazioaren arabera. Irizpide honen bidez, ikasleak bere instrumentuaren eta bestearen tinbrea atzemateko duen gaitasuna neurtu nahi da, taldearen soinu-batasuna indartzen lagunduko delako soinu bakar-oso baten modura. 2. Ikasleak taldearekiko duen lotura-erlazioa. Ikasleak bere kideekin eta lantalde ezberdinetan murgiltzeko ahalmena, baita atril lagunek eskainitako aholkuei, zuzendariak eta bestelako irakasleriak proposatutako interpretazio araudien errespetuari, edo-eta entzuleen aurrean erakutsi beharreko egokitzapena neurtzeko erabiliko da irizpide hau. 3. Ikasturtean bere sekzioan eta instrumentu-familian programatutako edozein obra interpretatzea. Ikasturtean zehar, bere sekzio edo instrumentu-familiari egokitzeko duen gaitasuna eta, era berean, zuzendariaren anakrusaren arabera noten eraso eta sarrerak zehazteko duena neurtzen da. 4. Programatutako errepertorioan dauden lanak nork bere kasa lantzea. Ikasleak taldekide moduan duen erantzukizuna, taldearen partaide izatearen duen autoestima, musika ikasketari dion atxikimendu edo zaletasuna, zuzendari eta taldekideei dien errespetua eta, bere ikaste orduetako inplikazio maila, eta kideekiko zein entsegu orduetako azaldutako errespetu maila neurtzen dira irizpide honen bitartez. |

EDUKIAK

1. Afinazioa:
 - Aurretiazko afinazioa: Afinazio patroia bereiztea.
 - Talde afinazioa: Kontrola
 - Entzumenaren ahalmenak garatzea .
 - Elkar arteko entzumena garatzea.
2. Erritmoaren ezaugarriak: doinuan eta perkusioan
 - Unitate erritmikoa
 - Atzerapenak eta aurrerapenak.
 - Doinua eta konpasa galtzea eta berreskuratzea
 - Perkusioaren oinarrizko erritmoak (danbolina eta bonbetea)
3. Isiltasuna, musika elementu gisa.
 - Jotzen ez den esaldi luzeetan erreferentziatzko elementuak ezartzen ikastea .
 - Interpretazioaren isiluneak eta arnasaldi uneak errespetatzea musikaren esaldietan.
4. Ikaslea taldeetan arian-arian integratzea: bere instrumentuarekin, instrumentu familian edota beste taldeetan.
 - Ahotzen bereizketa eta ezagutza: Lehenengoa, bigarrena eta silbotea.
5. Soinuaren kalitatea:
 - Ñabardurak, kolorea, indarra, eta noten erasoaren bateratasuna.
6. Gorputz jarrera: kontrola, naturaltasuna eta erlaxazioa.
7. Anakrusa eta keinuak taldeetako oinarrizko konjuntzioan. Ezaugarri teknikoak
8. Musikaz gozatzen ikastea jarrera desinteresatuarekin kidesun balio baten modura.
9. Gizabanakoaren jokaera taldean:
 - Isiltasuna errespeto mailaren oinarri modura.
 - Taldeko partaideen giza balioen ezagutzak.
 - Formak eta koherentzia, taldearen formaziozko oinarri bihurtzen dira.
10. Errepertorioaren ikasi eta interpretatzea:
 - Norberaren partiturak eta zatiak ikastea.
 - Taldeetako entseguen arintasuna bermatuko dituzten Ikasketa ohiturak garatzea.

METODOLOGIA

Ez dago material aukeraketa bakarra, berau, talde bakoitzarekin, sail, edo-ta musikatresna familiarekin egokituko da era ordenatu eta egoki batean. Ekintzen arabera, errazagoa edo-ta zailagoa izan ahalko da, baina beti ikasgaiaren edukiekin bat eginik, noski.

Metodologia, klaseko saioetan oinarrituko da non eta irakasleak, ikasleak beharko dituen jarraibideak eta azalpenak emango ditu programaketaren errepertorioa landu eta bete ahal dezan. Halaber, ikasleak euren auto-ebaluazioa egiteko prozesuan murgiltzen hasi beharko dira pixka-pixkanaka eta irakaslearekin batera, hobekuntza prozedurak landuko dituzte euren autonomia eta autokritika bultzatzeko, eta honekin batera, beraien inplikazio- ardurak ikasketa prozesuan zehar. Honek, iritziak lantzeko elementuak eta aurrerantz behar izango dituzten irizpide pertsonalak sortzen eragingo die atzitzen ari diren alderdi musikal eta tekniko guztietan, ostean, ikuspegi propioa sortu ahalko dute jo-tresnarekiko eta lortu duten mailarekiko.

Paraleloan, instrumentuarekin eta berari atxikitutako beste gaiekin eman behar izango dituzten ikaste orduen autogestio prozedurak antolatzen lagunduko die.

| EBALUAZIO TRESNAK | KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK |
|--|---|
| <p>Ebaluazio jarraiak markatuko ditu ikaslearen batuz besteko maila klaseetan zehar, bai eta etxean eginiko lanaren fruitua.</p> <p>1. Zundaketa: Txistu ikasketetako irakasleak/ek, ikasleen informazioaren jakinaren gainean egon beharko litzateke (adina, espediente akademikoa, egoera pertsonala eta abar) ezarritako helburuen betetze eta progresu maila kudeatzeko. Eurenak beste, ikasleen tutoreen eta lengoia musikaleko irakasleriak duenez balia ahal izango dira. Lan hau programazio denboraldi berriarekin edo-ta hiru-hilabete berriaren hasierarekin errepikatu beharko da. Dena den, irakasleentzako zein irakasgaiaren funtzionamendu egokia bermatzeko informazio baliagarria da.</p> <p>2. Berrikustea: Ikaslearen progresua, aurreko asteetako klaseetan landutako ikasmaterialarekiko egiten dituen progresuen kontrastasuna da (teknika alorretan, soinuan, interpretazioan eta abar).</p> <p>3. Jarrera: Dena den, ebaluatzeko orduan funtsezko irizpide izango dira, irakasgaiarekiko interesa eta inplikazioa, etxean bakarka egindako lana, motibazioa eta aurrera egiteko grina, eta nola ez, puntualtasuna, hutsegiteak eta irakasleak proposaturiko ekintzetan partehartzea.</p> | <p>1. Klaseetan, puntualtasunean, materialaren begirunean, jarreran, eginiko lanean eta lorturiko aurrerakuntzetan: NOTAREN 70%</p> <p>2. Azterketak, Kontrolak eta beste entzuketak: NOTAREN 30%</p> |

| EBALUAZIOAREN ONDORIOAK |
|--|
| <p>Ikasleek gutxieneko puntuazio bat lortu behar dute, 5ekoa alegia, ikasgaia gainditzeko. Puntuazio hau gainditzen ez duten ikasleek edo eskolatan huts-egite minimoa gainditzeagatik edo-ta ebaluazio jarraia galdu dutenek, errehabilitazio ekintza edo azterketa bat egin beharko dute. Froga honetan, irakasleak azkeneko ebaluazioan emango dion fitxan adierazten dena jo eta interpretatu beharko du.</p> <p>Halaber, irakasleak programazioan oinarritutako hiru galdera agin ahal izango dizkio, mailaren eduki-helburuak zein neurriraino ulertu dituen jakiteko.</p> <p>1. Ebaluaketa jarraiaren eskubidea gal daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Justifikatu gabeko SEI HUTS EGITE baino gehiago eginez gero. <p>2. Ikasleak EZ-OHIKO ERREKUPERAZIO AZTERKETA egiteko aukera/eskubidea izango du (ekaina bukaeran):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasturteko OHIZKO EBALUAKETA gaindituko ez balu (ekaina hasieran) edota, - EBALUAKETA JARRAIAREN eskubidea galduko balu. - Ez-ohizko ebaluaketaren egitaraua, ikasmailaren edukien baitan, espezialitateko irakasleak prestatuko du. <p>3. Ikasleak aurreko ikasturtean GAINDITU GABEKO GAIK errehabilitatu ahal izango ditu ikasturte berrian egiten diren edozein ebaluaketaren barne.</p> |

GUTXIENEO ESKAKIZUNAK

- Bikotearen eta talde txikien ezagutzak.
- Afinazioaren praktika: taldeko afinazioaren arabera, soinu batasun lorpenak.
- Taldearekiko edo-ta kideen ezberdintasunarekiko arreta eta errespetua.
- Egokitutako ahotsa eta instrumentu familiar programatutako edozein obra ikasi eta interpretatzea.
- Programatutako errepertorioan dauden lanak nork bere kasa lantzea taldeari kalte ez egiteko.

Gutxieneko BI emanaldietan partehartu beharko du (jendeurrekoetan, zein klase barneko ekintza modura) aipatzen diren eskakizun hauen betetze maila egiaztatzeko.

EZ OHIKO AZTERKETA

EZ OHIKO AZTERKETARAKO, honako lan zerrenda aurkeztu beharko du ikasleak eta bertan egiaztatu mailari dagozkion gutxieneko edukiak eta helburuak gainditu dituela.

OHARRA: Azterketako errepertorioa irakaslearekin adostu beharko du ikasleak.

| | |
|------------------------|---------------------------|
| OBRAK | HIRU OBRA (edozein ahots) |
| DANBOLINA eta BONBETEA | Ahotsaren arabera |